ASTEKARIA - 2011ko apirilaren 1ean - XV. urtea - Usurbil, 444. zenbakia

TOKIKOM

www.noaua.com

# Noaua!!



Euskal Sagardoaren aurkezpena Usurbilen egin zen



Igandean ez da Aginagako Mendi Lasterketan izango

## Arantxa Eizagirrek erretiroa hartu du


FUNERARIA
GONZALEZ
EHORZTETXEA
munalurra 8, Usurbil
943 36 21 63
660 388 652 - 608 16 77 92
·Zerbitzu azkarra eta etengabea 24h
·BEILATOKI GUZTIETAN zerbitzuak
·ERRAUSKETA eta errauts-kutxak
·Ospitale zentru eta egoitzetan zerbitzuak
·ASEGURU konpaini GUZTIAK, deiguzu zuzenean denetaz arduratzen gara
·Lekualdaketak, eskelak, urteurrenak...
·Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo beilatokia DOAN izango da gure eskutik
info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es


Marije
Arropa denda
Denboraldi berria!
Etxebeste,3 - 943 36 11 06 - USURBIL


HAUR ESKOLA
0-3 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZAKO
2009, 2010 eta 2011an jaio eta jaioko diren haurrak
• NON: Kalezarren
• HAUR ESKOLAKO ORDUTEGIA: 7.30 -17.00*
• EGUTEGIA: astelehenetik ostiralera. Iraila - Uztaila
• INFORMAZIOA ETA HITZORDUA:
apirilaren 11tik 20ra eta maiatzak 2 eta 3 9.30etatik 12.30etara
• ATE IREKIEN EGUNA: apirilak 5 euskaraz 17.00etan eta
apirilak 6 erdaraz 17.00etan
OSASUN HEZIKETA
ELIKADURA EKOLOGIKOA
JANTOKIA
ZERBITZU PEDAGOGIKOA GURASO ESKOLA
EKIMEN BEREZIAK
943 374 061

Albistea iruditan

# "Aire Garbiak Bira Nazan" esaldia, mural batean

*Aire Garbiak Bira Nazan* eguna zen larunbatekoa, atez ateko bilketaren bigarren urtemugaren baitan. Dagoeneko, herriko txoko ezberdinetan irakurri daitekeen esaldia. Goizean aipatu leloa zeramaten pankartak margotu zituzten Dema plazan. Aldarrikapen bera duten haize-errotak eta kamisetak ere salgai izan ziren. Haize-errotak Marijen dendan erosi daitezke egunotan.

Ondoren, margotutako pankartekin kalejira burutu zen Kaxkotik Atxegalderaino. N-634 ondoko horman zintzilikatu zituzten, Usurbil Zero Zabor bilguneko kideek.



LARUNBATEAN ZINTZILIKATU ZITUZTEN MURAL HAUEK N-634 ERREPIDE ONDOAN.

## Telefono interesgarriak

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Udala | 943 371 951 | Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 | DYA | 943 464 622 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 | Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 | Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 | Etumeta AEK Euskaltegia | 943 372 001 | Emergentziak | 112 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 | Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 | Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 | Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 373 228 | Gipuzkoa Donostia Kutxa | 943 361 202 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 | Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 | Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 | Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 | Banco Guipuzcoano | 943 370 006 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 | Taxia (Angel) | 607 928 770 | Banco Popular Español | 943 370 411 |
| Haur Eskola | 943 374 061 | Taxia (Joxe Kruz) | 677 373 466 | BBVA | 943 377 155 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 | Eusko Tren | 943 470 976 | Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 | Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 | Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 | Anbulategia | 943 362 013 | Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| KZgunea | 943 361 412 | Oa botika | 943 361 217 | Telefonica | 1004 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 | Iturralde botika | 943 363 395 | Euskaltel | 900 840 840 |

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Alaitz Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IDOIA TORREGARAI

# (Ditxosozko) krisiaren istorio bat

LANBIDE enplegu bulegoa. Astelehena da, goizeko 10ak. Emakume funtzionarioak ordenagailuaren pantailan begiak jarririk "Hurrengoa!" dei egiten du. Eta ilarako hurrengoa Olentzero da. Funtzionarioaren mahaiaren aurrekaldeko aulkian esertzen da, bere zaku, pipa eta ikatzez zikindutako aurpegiarekin.

- OLENTZERO: Egun on Jainkuak! Paruan apuntatzea nator.

- FUNTZIONARIA (begiratu gabe, ordenadorean idazten jarraitzen du. Ahots mekanikoarekin): Primeran. Izen abizenak esan, eta mesedez pipa itzali, hau kerik gabeko gunea da eta.

- OLENTZERO (pipa itzaltzen du, ez dio graziarik egiten): Ni Olentzero naiz, apelliduik gabe. Denak hola ezautzen naute.

-FUNTZIONARIOA (begiratu gabe, idazten jarraitzen du): Helbidea?

- OLENTZERO: Andatza.

- FUNTZIONARIOA (keinurik egin gabe): Kode postala?

- OLENTZERO: Kode postala? Nik ez dakat holakoik, baina problemik gabe irixten zaizkit kartak, lasai eon.

- FUNTZIONARIOA: Jaiotze-data?

- OLENTZERO: Krixto aurreko ekainaren 23a.

- FUNTZIONARIOA (letxe txarrarekin): Krixto aurretik? Hori ezin det jarri formularioan, programak ez dit aukerarik ematen. Beraz, itxuragatik 1946a jarriko dizut eta kitto. Lan esperientzia?

- OLENTZERO: Ikatza egiten lan egin det bizitza osuan, baina energia berriztagarriyen modakin eta krisiarekin baxoerdi bat hartzeko adina ere ez dakat. Hortik aparte, gabonetan ere ordu extra batzuk egiten dittut, baina horrekin "cuesta de enerua" pasatzeko ere ez dakat. Zenbat garestitu dan bizitza, amatxo maitia!

- FUNTZIONARIOA: Ba al daukazu ikasketa edo aipatu dizkidazun lan horien ziurtagiririk?

- OLENTZERO: Ikasketak?!! Jesus, Maria eta Joxe! Ikasketak bizitzak eman dizkidanak dazkat eta ziurtagiri bakarra ere ez, gure garayan behar ez zialako eta holako txorakeri bat eskatuz geo belarrondoko eder bat emango zigutelako. Lan egiteko bi esku, horixe bakarrik bihar zian, ez orain bezala, deneako titulitisa behar dala!

- FUNTZIONARIOA (ordenagiluan jo eta fuego idazten jarraitzen du): Ados... Zeintzuk dira zure ustez dituzun trebetasun profesionalak?

- OLENTZERO: Trebetasunak? Ia ba... Txondorrak egiten habila naiz..., txikiteuan ere ez dit inork irabazten..., haurrekin oso ondo eamatean naiz eta repartidore moduan ez daukat preziyorik! Gau bakar batian kapaza naiz Euskal Herriko etxe guztietara paketiak banatzeko!

- FUNTZIONARIOA: Ez da exageratu behar ere, e? Itxaron pixka bat... badirudi zortea izango duzula. Badago lanpostu bat zure profilera nahikoa ondo egokitzen dena. Joan zaitez helbide honetara bihar eguerdian.

Olentzero hurrengo egunean esandako tokira agertzen da eta hantxe ematen diote Telepizzako jantzia eta kaskoa. Hogei bat urteko gazte bat hurbiltzen zaio, pizza batekin.

- TELEPIZZAko GAZTEA (jarrera haundinahiarekin): Olentzero, cuatro quesos bat Prim kalerako. Benga, alde hemendik derrepentean!

- OLENTZERO (hasperen eginez bere kolkorako): Olentzero, zeinek esan behar zian hemen bukatuko huenik, jexux, maria eta joxe! Bukatuko al da noizbait krisi alu hau?

Une horretantxe Santa Claus agertzen da Telepizzako beste moto baten gainean, pizza eta guzti. Olentzerori eskua sorbaldan jartzen dio:

- SANTA CLAUS (etsituta): Olentzero, ba ez kejatu gehiegi, gu baino okerrago daudenak badaude eta. Errege magoek ez dute kleenex saltzaile bezala ere lana aurkitzen brigada antidrogakek kamelluekin harrapatu zituztenetik!! Harrapazak!

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Joxe Piñas - Unai Agirre - **Idoia Torregarai**

Ika-mika

## Ingemarreko langileekin elkartasuna

Gogorra egiten zaio edozein herritarri ikustea zuek nola zaudeten, (kanpin-dendatan, gurutzez inguratuta zuen lantegi aurrean...). Gu ere seguru gaude Ingemarrek baduela etorkizuna Usurbilen, beti ere gaurko zuzendaritzak borondatea izango balu eta hemengo lantegiaren alde egingo balu... Ez Galiziara lana desbideratuz, orain egiten ari den bezala!

Ingemarreko langileak momentu gogorrak pasatzen ari zarete, baina arrazoiaren indarra zuekin dagoela begi bistakoa da. Usurbilgo herritarren ordezkariak garen alderdi guztiok ere aho batez onartu genuen zuek aurkeztutako mozioa martxoaren 11n ospatutako pleno berezi horretan.

Guk ere Usurbilgo jende gehienak bezala pentsatzen dugu Ingemarrek gaurko langileen eta atzetik etorriko direnen ogibidea izaten jarraitu behar duela. Beraz, edozein beharretako, gu ere hortxe izango gaituzue! Eutsi goiari!

**Usurbilgo Aralar**

## Sekaña eta Agerreazpi: 276 eskaera jaso dira

Guztira 276 eskaera jaso ditu Udalak, apirilean burututuko den babes ofizialeko etxebizitzen zozketarako. 22 Sekaña eremuan eraikiko dira, beste 36 Agerreazpin.

Otsailaren erdialdean zabaldu zen izena emateko epea eta 276 izan dira izena eman dutenak.

Zozketa apirilean egingo dela aurreratu zuen udal gobernuak.

# Usurbilgo Itunak errausketa baztertzea eskatuko du, mozioen bidez

**Errauste plantak alor desberdinetan ekarriko dituen kalteak eta Foru Aldundiak hiri hondakinen kudeaketaren inguruan harturiko erabakiak salatu ditu beste behin Usurbilgo Itunak. Egitasmoa finantzatuko duten bankuekin biltzea eskatu zuten joan den astean eskaini zuten prentsaurrekoan. Bestalde, Gipuzkoako hainbat udalbatzatan gai honi loturiko mozioa aurkeztekoak dira. Dokumentuaren edukia ere zein izango den aurreratu zuten agerraldian.**

Mozio hau aurkeztearen atzean, Usurbilgo Ituna sinatu zuten alderdi politiko, sindikatu eta gizarte eragileen kezka dago. Kezka, Zubietan eraiki nahi duten errauste plantak 580 milioi euroko kostua izango duelako, BEZ-a gehituta ia 700 milioi euro, joan den ostiralean ituneko sinatzaileek prentsaurrekoan agertu zuten moduan.

"Herritarrengandik geroz eta urrunago dago. Gipuzkoako oinarri soziala oso urrun dute, eta inolaz ere ez dute aintzat hartzen", adierazi zuen prentsaurrekoan Xabier Mikel Errekondok, Aldunditik birziklatzearen aldeko benetako apustua egiten ez dutela esatearekin batera. Hiri hondakinen kudeaketa publikotik pribatura igaro eta gaineratzen zuenez, entitate finantzarioen, errauskailuaren inguruko "lobbya"aren morroian bihurtu da Aldundia.

Hori guztia, Usurbilgo Ituneko ordezkariek berresten dutenez, alternatibak badirenean. Gogorarazten dutenez, atez ateko bilketarekin ez da errausteg iaren beharrik eta gaineratzen dutenez, "hondakinak atez ate bilduta, ia 500 lanpostu berri sor daitezke Gipuzkoan".



DONOSTIAN PRENTSAURREKOA ESKAINI ZUTEN AURREKO ASTEAN.

## Zortzi puntuko mozioa

Usurbilgo Ituna Gipuzkoako hainbat udaletan aurkeztekoa den mozioak hondakinak kudeatzeko beste modu bat defendatzen du, errausketa alboratzen duena. Laburbilduta, hona hemen mozioak jasotzen duena:

1-Hondakinak kudeatzerakoan, osasuna lehenestea.

2-Ingurumena kalte lezaketen tratamenduak baztertzea.

3-%80tik gorako gaikako bilketak egonik, errausketaren bidea baztertzea.

4-5.000 biztanletik gorako udalerrietan materia organiko guztia gaika biltzea derrigortzen duen 10/98 legea betetzea. Baita biztanle gutxiago duten gainerako udalerrietan ere.

5-Hiru urteko moratoria eskaera Zubietako errauste plantarentzat.

6-Errauste plantaren 580 milioi euroko kostua dela eta, larritzat jotzea udalei eragingo dien hamarkadetako mendekotasun ekonomikoa.

7-Errauste plantaren finantziazioa (La Caixa, Banesto eta Europako Inbertsio Bankuaren eskutik) bertan behera uztea.

8-Erabakiaren berri, Ahaldun Nagusiari, Banestori, La Caixari, EIBri eta hedabideei jakinaraztea.

## Ricardo Crespo izango da PSE-EEren alkategaia



Asteartean aurkeztu zituen PSE-EE-k Usurbil eta Gipuzkoa mailan burutuko diren hauteskundeei begirako hautagaiak: Ahaldun Nagusi gisa, Miguel Buen, Batzar Nagusietako lehendakaritzarako Rafaela Romero eta Usurbilgo Udaleko alkatetzarako Ricardo Crespo. Amaya Goyaran ordezkatuko du Crespok, azken urteotan sozialisten ordezkari izan denak udal ardurak uzteko asmoa baitu. Aurreko hauteskundeetan bigarren postuan aurkeztu zen Crespo. Usurbildarra, Gipuzkoako Gazte Sozialisten koordinatzailea da eta Gipuzkoako Gobernu Ordezkaritzan aholkulari lanetan dabil. Datorren asteko alean, informazio gehiago.

## Andoni Atxega izango da EAJ-PNVko alkategaia



Maiatzaren 22an izango dira foru eta udal hauteskundeak. Alderdi batzuk hasi dira euren hautagaiak aurkezten. Hamaikabat izan zen Usurbilen, alkategaia aurkeztu zuen lehen alderdia. Luismari Ormaetxea izango da Hamaikabat alderdiaren hautagaia alkatetzarako.

EAJ-PNVk, aldiz, aurreko astean eman zuen ezagutzera alkatetzarako hautagaia. Andoni Atxega izango da Usurbilgo zerrenda burua. Legealdi honetan ez baina aurreko bietan udal zinegotzia izan zen Andoni Atxega.





# Hemen da Euskal Sagardoa

## 14. labeldun produktuaren zigilu berria Saizarren aurkeztu zen

**Sagardoak ere, Eusko Labela du jada. Iragan astean aurkeztu zen jendaurrean, Saizar sagardotegian. Sagardo ekoizle, sagardogile elkarteetako edota udal zein Eusko Jaurlaritzako ordezkariak bertaratu ziren ekitaldira. Guztien adierazpenetan, pozarren, ospakizun eta egun handi bezala definitu zuten aurkezpen ekitaldia. Bereizgarri honekin, ekoizleen lanari balioa eman, merkatuan lehiakortasunean irabazi eta kontsumitzaileei kalitatea eskaini nahi zaie.**

Okela, baserriko oilasko eta arrautza, esne bildotsa, Arabako patata, Gernikako piperra, Ibarrako piparrak, babarrunak, hegaluze eta hegalaburra, eztia, eta aurrerantzean, Eusko Labela duen sagardoa ere aurkitu ahal izango dugu merkatuan. Euskal Sagardoa izenez ezagutuko den marka, Saizar sagardotegian aurkeztu zuten joan den martxoaren 23an.



AURTEN, 860.000 LITRO PLAZARATUKO DITUZTE EUSKO LABEL ZIGILUAREKIN.

**PILAR UNZALU SAILBURUA**

> "Kalitatea bermatuko da jatorritik, ekoizpenetik; amaierara, kontsumoraino"

Eusko labeldun hamalaugarren produktua izango da Euskal Sagardoa, eta aipatu marka ez duen edariarekin alderatuta, berezitasun nagusi bat izango du: Euskal Sagardoa ehuneko ehunean bertako sagarrarekin ekoitzitakoa izango da. Eta kontrola bermatua egongo da. Prentsa ohar bidez egitasmoko eragileek jakitera eman dutenez, "marka publiko eta ofizialen kontrol sistemek funtzionatu egiten dute, eta ikusiko balitz araudia ez dela betetzen behar diren neurriak hartuko lirateke".

Aurkezpen ekitaldian aipatu zutenez, ingurunearen zainketa, baserritarrek egindako lanaren onarpena, kalitatea eta kontrola, eta kontsumitzailearen gogobetetasuna bultzatu nahi du eusko labeldun produktu honek. Aurten, 860.000 litro Euskal Sagardo ekoitzi dituzte jada Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hogei sagardotegik, tartean Saizarrek eta Aginagak.

### "Zorionak eta aurrera"

Aurkezpen ekitaldian ziren, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako eta alkatea buru zuen Usurbilgo Udaleko ordezkariak, baita sagardo ekoizle, teknikari eta sagardogile elkarteetako kideak ere. Esker eta zorion hitzak nagusitu ziren, ospakizunean bihurtu zen aurkezpen ekitaldian. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailburu Pilar Unzaluren kasuan, "K kalitatedun produktu berri bat izateagatik". Jaurlaritzak bertako produktuak kalitatearen bidez bereizteko apustua berretsi zuen Unzaluk. Kalitatea bermatuko da bere esanetan, "jatorritik, ekoizpenetik, amaierara, kontsumoraino".

Euskal Sagardoaren kalitatea bermatzeko, sagar ekoizpena eta ekoizleak ikuskatuko dira, sagardi eta sagarrak kontrolatu, baita sagarraren garraioa sagardotegietara, sagardoa nola egin, ontziratu eta etiketatu ere. Azken proba Kalitatearen teknikariez osaturiko kalifikazio-batzordeak egingo du. Bide honetatik aurrera begira lanean jarraitzeko beharra azpimarratu zuen Jaurlaritzako sailburuak. "860.000 litro ditugu K kalitatearekin, baina potentzialtasun handiagoa", zioen Unzaluk. Aipatzen zuenez, 6-7 milioi kilo sagar guztira. Horregatik bide honetatik aurrera jarraitzeko desioa agertu zuen, "zorionak eta aurrera" adieraziz.

### "Janzkera berria du sagardoak orain"

Labela aurkeztuta, urrats garrantzitsua eman dela zioen Eusko Jaurlaritzako sailburu orde Jon Azkuek. "Janzkera berria du sagardoak. Janzkera hau izateko jende askok puntada asko eman ditu. Kalitatez jantzi dugu gainera", adierazi zuen Saizarren egindako adierazpenetan, egun handitzat definitu zuen ekitaldian.

# "Bertako sagarrarekin egindako sagardoa"

**Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako sagardogile elkarteetako ordezkariak ere pozik agertu ziren. Honaino ailegatzeko jorratu den bide luzea aipatzen zuen Gipuzkoatik Arantxa Eguskitzak, produktu hau kalean izateko egon den adostasuna nabarmentzearekin batera. "Bide luzea egin dugu. Helburua lortu da. Bertako sagarrarekin eginiko sagardoa hemen dugu", zioen. Baina lana hemen ez dela amaitzen zioen, "poliki aurrera jarraituko dugu. Bertako sagarrarekin litro gehiago ekoizteko gai izan behar gara". Horrek ekarriko baitu, bere esanetan, sektorearen indartzea.**

### "Sagardoaren etorkizuna hobea izan liteke aurrerantzean"

Merezi izan duen bidea jorratuta eta modu berean jarraituta, sagardoak etorkizun esperantzagarria duela zioen Bizkaiko sagardogile elkarteko ordezkari Juan Jose Peciñak. "Sagardoarentzat etorkizuna ona edo hobea izan liteke gaurtik aurrera", adierazi zuen, egitasmoan parte hartu duten erakunde eta teknikariei eskerrak helaraztearekin batera.

Labeldun produktu berri honi lotutako kanpaina abian da jada. Spot berezi bat ikus ahal izango da hedabideetan, maiatzaren 8ra arte, "merkatuan nabarmentasuna lortzeko, Euskadiko nekazaritza eta arrantza sektoreari balioa emanez". Egitasmoaren inguruko informazio gehiago web orrialde honetan jaso daiteke: euskolabelsagardoa.net.

### Hogei sagardotegi

Gipuzkoan hamalau: Aburuza, Aginaga, Añota, Astarbe, Baleio, Bereziartua, Eula, Iparragirre, Lizeaga, Ola, Petritegi, Rezola, Saizar eta Urbitarte.

Bizkaian sei: Axpe, Etxebarria, Kandi, Laneko, Malgarrazaga eta Uxarte.

Interesa agertu dutenak: Calonge, Etxeberria, Larrate, Urkiola, Itsas-Buru, Iturrieta eta Sebastianeko.




EUSKO LABEL ETIKETA AGERTUKO DA BOTILETAN.

# Giro ezin hobea pasa den larunbateko bertso afarian

Zero Zabor taldeak, Botapunttuba Bertso Eskolak eta Kantu Taldekoek antolaturik Bertso Kantu Jira Afaria ekimenera ehundik gora herritar batu ziren. Arratsaldeko 19:00ak pasatxotan abiatutako kalejirarekin ekin zitzaion, Atez Ateko Bilketaren II. Urtemugaren baitan antolatu zen ekimenari. Kantu Taldekoen saioak, Maialen Lujanbio zein Sustrai Colinaren bertsoek edota trikitilariek girotu zuten Kaxkoan barrena burutu zen kalejira. Bertaratu ziren herritarrak, kantuan eta dantzan aritu ziren, bertsoak entzutearekin batera. Agerialden jarraitu zuen festak herri afari batekin.

Ekitaldia borobiltzeko, "Hartu nahi dut arnas" Flash Mob ekimeneko kantuaren koreografia dantzatzera animatu zen talde bat. Kantu-jira, bertso-afari zein dantza inprobisatuen bideoak noaua.com web orrian topatuko dituzue.



AFARIA BAINO LEHEN, KANTU-JIRAN IBILI ZIREN MAIALEN ETA SUSTRAI.

TAXI 24h
Jose Etxabe USURBIL
677 37 34 66
943 36 21 78

izAgirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirrelektrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE
Obaba kalea 29 · ASTEASU
✆ 943 69 68 52 · 620 800 186

# 2011rako NOAUA!ren erronkak, web orria eta astekaria sendotzea

**Aurreko ostegunean, NOAUA! Kultur Elkarteko bazkideak urteko ohiko batzar nagusira deituak zeuden. Batzarra egoitzan bertan burutu zen.**

Iazko memoria eta balantze ekonomikoa aztertzeaz gain, 2011 urterako egitasmoak eta aurrekontuak aurkeztu ziren.

Azken urteotan, jende gutxi biltzen da batzarretan baina bazkideen balorazioak beti dira estimatzekoak.

Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena ere aztergaien artean zen, baina batzarrean ez zen Zuzendaritza berritzeko aukerarik izan.

Beste kontu batzuen artean, aipatzekoa da Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak eta Berria Taldeak elkarlan hitzarmena sinatu dutela eta, horrenbestez, aurrerantzean sareko edukiak elkarbanatu egingo dituzte. Erabiltzaileak, esate baterako, Usurbilgo informazioa pertsonalizatzeko aukera izango du berria.info web orrian. Eta NOAUA!k, bestetik, berria.info web orriko informazioa txertatu ahal izango du noaua.com web orrialdean.



NOAUA!REN FLASH MOB BIDEOAK 1.200 BISITATIK GORA IZAN DITU.

## "Usurbilgo ondarea ezagutzen", sarean

Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatibak 100 urte bete zituen 2008an. Aspaldiko ametsa gauzatzeko baliatu zuten urteurrena. Herri barruti osoan, erribera, mendi, erreka eta abarretan, sakabanatuta dagoen ondarea biltzen duen liburua argitara emanez: "Usurbilgo ondarea ezagutzen" liburua.

NOAUA!k eta Usurbilgo Udalak babestu zuten Alkartasunaren ekimena. Josu Tellabidek eta Asier Agirresarobek osatu zuten liburua, makina bat herritarren laguntzari esker.

Liburua Usurbilgo etxe eta baserri guztietan banatu zen. Aurrerantzean, paperean ez ezik noaua.com web orrialdean ere aurkituko duzue.

# Berri Txarrak-en kontzertura joateko sarrera bat irabazi nahi?

**Atez ateko bilketa sistemak bi urte bete ditu Usurbilen. Hori dela eta, Udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu. Datorren astean, apirilaren 9an larunbata, Berri Txarrak, Desegin eta Odolaren Mintzoa taldeek kontzertua eskainiko dute frontoian. Bost sarrera indibidual ditugu zozketatzeko.**

Zozketan parte hartzeko, galdera hau erantzun behar duzue.

Galdera: Nola du izena Berri Txarraken baterijole berriak?

Erantzuna erredakzioa@noaua.com helbidera bidali edo NOAUA!ko bulegora ekarri, apirilaren 7a baino lehen.



BOST SARRERA INDIBIDUAL LORTZEKO AUKERA APARTA DUZUE.

Irabazleen izenak apirilaren 7an argitaratuko ditugu noaua.com web orrian.

Gogoan izan, www.noaua.com webgunean beste bost sarrera zozketatzen ari garela. Baina web orrian galdera ezberdina da.

## Sarrerak kiroldegian jarri dituzte salgai

Astelehenean jarri zituzten Berri Txarrak, Desegin eta Odolaren Mintzoa taldeen kontzerturako sarrerak salgai. Aurretiaz sarrerak 10 euroko prezioa izango du eta egunean bertan 12 euro.

Atez Ateko bilketaren II. urteurrena ospatzeko jaiaren baitan izango da kontzertua eta aurretiaz sarrerak erosi nahi dituenak honako lekuetan erosi ahalko ditu:

Usurbilen Kiroldegian; Donostian Doka eta Herria tabernetan; Hernanin Garinen; Lasarten Jalgin; Orion Kolon Txikin, Zarautzen Arranon eta Zumaian Inpernupen.

LATAILLADE ITURGINTZA
GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK
Ariztitxo 8,behea · 943 363 348 · 609 888 021

URDAINTZI eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

BORDATXO edaritegia
PINTXO BEREZIAK
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

# "Ekarri behar ez duzuna, eta behar duzuna eraman"

Etxean zenbat gauza dituzu, ongi egon arren erabiltzen ez dituzunak? Zenbat, beste norbaitek gustura hartuko lituzkeenak? Truke Azokako antolatzaileek egindako galderak dira horiek. "Ba hemen duzu aukera… Ekarri behar ez duzuna eta behar duzuna eraman!". Horrela iragarria zuten Truke Azoka. Baina eguraldiaren beldur, Txokoalden beharrean Aginagako frontoian egin zen.

Trikitilariek alaitu zuten Truke Azokaren bigarren edizioa. Ondoren, azokan bildu ziren askok frontoian bertan bazkaldu zuten.

"Gauza bakoitzak guk geuk ezartzen diogun balioa du", hala diote Trukalariak taldekoek. Eta akaso, ez al da urte osoan gogoan izateko moduko hausnarketa?



TXOKOALDEN BEHARREAN, AGINAGAKO FRONTOIAN EGIN ZEN TRUKE AZOKA.



## Lasterketak uztea erabaki du Arantxa Eizagirre zubietarrak

# “Pena sentitzen dut baina egin beharrekoa egin dut”

**Mendi probak, herri lasterketak, Behobia-Donostia… Proba askotan parte hartu du Arantxa Eizagirre zubietarrak. Hamabi urteko ibilbidea osatu ostean, hainbestetan soinean eraman duen denbora kontrolatzeko erlojua etxean utzi eta proba hauetan parte hartzea uztea erabaki du. Aurten ez da Aginagako Mendi Lasterketan izango, baina doazenentzat hona hemen Eizagirreren zenbait aholku.**



AGINAGAKO MENDI LASTERKETAN BITAN IZAN DA. AURTEN EZ DA ATERAKO.

**NOAUA! Iaz Aginagako Mendi Lasterketan aritu zinen. Zer oroitzapen dituzu?**

**Arantxa Eizagirre.** Polita izan zen. Bi edizioetan parte hartu dut. Iazkoan aldaketa pixka bat bazegoen eta nik uste politagoa zela. Aginagakoa, bertan parte hartzen nuen lehenengo mendi lasterketa zen, beti Berara, Zegamara edo Pagoetara joaten bainintzen.

**N. Berezitasunik badu Aginagako mendi probak gainerakoekin alderatuta?**

**A. E.** Neure gusturako, pista dezente du Aginagakoak. Herrian bertan da bestalde, eta askotan guk jartzen ditugun lotsak edo espektatiba gehiago izaten dira.

**N. Mendi lasterketan parte hartzeko prestakuntza berezirik behar da?**

**A. E.** Mendian ibili behar da. Nahiz oinez ibili edo lasterka aritu, ahal den moduan, Andatzara buelta batzuk egin behar dira. Oinez, korrika, aldapak egiten saiatu behar zara, gorantz, beherantz, harri tartean... Hori garrantzitsua da. Mendia ezagutu behar da. Mendi lasterketa batean oso garbi ikusten da zein den mendizalea eta zein lasterkaria. Asfaltoko korrikalari bat ez da osoa mendirako, ezta mendizale bat ere. Bien arteko zerbait behar da. Asfaltoan dabilen batek mendira joan behar luke. Mendian ibili behar du.

**N. Trebatzeko, Andatzara beraz?**

**A. E.** Andatza mendi polita da herri lasterketa bat egiteko. Beti iruditu zait, posibilitate handiak dituen mendia dela. Andatza gozamena da korrika egiteko, aukera piloa du. Aldapak, pistak… Alternatiba piloa ditu.

> ARANTXA EIZAGIRRE
>
> “Aurrerantzean, joan nahi badut joango naiz, baina beste modu batera. Erlojurik gabe”

**N. Kirol proba hauetan parte hartzea utzi duzu. Zer dela eta?**

**A. E.** Hainbeste proba egiten dituzu, dinamika batean sartzen zara; denborak eta orduak nahi dituzu. Azken entrenamendu guztietan, adin honetan serieak egiten, zertan ari naizen galdetzen nion neure buruari.

Neure buruaren kontra ari nintzela nioen, ez zela sanoa. Hemendik aurrera, belaunak zaindu behar dira. Pena sentitzen dut batetik baina bestalde, egin beharrekoa egin dut. Aizkorriko hiru probatan parte hartu dut, eta nahiago dut ibilbide hau ondo borobilduta uztea.

**N. Aurrerantzean, etxe ondotik pasatzen diren lasterkariei begiratzean zer sentsazio izango duzu?**

**A. E.** Joan nahi badut joango naiz, baina beste modu batera. Erlojurik gabe.

### “12 Behobia, 3 Aizkorri...”

**NOAUA! 12 urtetan proba askotan parte hartuko zenuen. Nondik nora ibili zara?**

**Arantxa Eizagurre.** Hamabi Behobia, hiru Aizkorri, Berako maratoi erdiak, Lakuntzako mendi lasterketak, Pagoetakoak, San Silvestreak… Herri lasterketa askotan parte hartu dut. Halere, mendikoekin gelditzen naiz. Jende askok ez dituela ezagutzen uste dut, gogor itxura dute, baina probatu egin behar dira. Gozatzekoak dira, batez ere gazteei esaten diet, probatu ezazue. Indarra, gaztetasuna, freskotasuna behar da.

**N. Lehenengo proba hartan parte hartzera zerk bultzatu zizun?**

**A. E.** Behobia-Donostia bukatzen zuen jende guztia miretsi egiten nuen. Zeinek ahalko luke hori bukatu? Esaten nuen. Behin batean, egin nuen 14 kilometroko entrenamendu saio bat, iritsiko nintzateke esaten nion neure buruari. Lehenengo Behobian, 1:52 egin nuen eta oso ona izan zen. Aizkorrikoan ere parte hartuta, gero gehiago nahi duzu. Ez da erraza muga jartzea eta ez da ona. Gozatu daitekeen gauza bat, gerora karga batean bihurtzen da.

# "Zalantzan dagoena, anima dadila"

**NOAUA! Emakumezko lasterkarien artean, ohiko partaide bihurtu zara. Nola ikusten duzu herriko emakumezkoen parte hartzea?**

**Arantxa Eizagirre.** Hor jarraitzen dugunak denak ezagutzen gara. Halere, jende berria bada. Konturatzen naiz, jendea geroz eta gehiago entrenatzen dela. Geroz eta serioago, beren entrenatzaileekin. Lasterketa herrikoietan maila handiagoa dago eta jende asko ez da ausartzen parte hartzera, emakumeak batez ere. Badira lilatoiak eta halako ekimenak, emakumeak pixka bat sartu behar luketenak, batez ere gazteak izanik.

**N. Zer ekarpen eman dizu kirol ibilbide honek?**

**A. E.** Jendea eta bertan sortzen den giroa. Gero norberak jasotzen duen asetasun pertsonala, diziplina. Lasterketa luzerako diziplina eta lan bat egin behar da eta hori ere eginez ikasten da. Askotan idealizatu egiten da, baina hastea da, eta gero segitzea. Lehen miretsi egiten nuen kirol jarduera hau eta gero bertan murgiltzen joan ahala, ez dela ezer esaten duzu. Kanpotik desberdin ikusten da.

**N. Zer aholku emango zenioke Mendi Lasterketan parte hartzera doanari?**

**A. E.** Andatzan buelta pare bat eman eta lasterketaz goza dezatela, erlojua etxean utzita. Hobe da lasterketan bost minutu gehiago egin eta sentsazio on batekin geratzea. Zalantzan dagoenak, parte har dezala. Mendi lasterketek aukera hori dute gainera, korrika egin ezin dena, oinez egin daitekeela. Aizkorriko lehen maratoia egin nuenean, irteera oso hunkigarria izan zen. Pentsatuko dut martxa bat dela, eta ahal dudan lekuan korrika egingo dudala, nioen. Eta hirugarren egin nuen neure mailan. Horrek karga bat kentzen dizu.



Arantxa Eizagirre iazko mendi lasterketan, Aginagako frontoiko helmugara iristen.

Zalantzan dagoena beraz, anima dadila. Eta daudenek jarrai dezatela. Mendiko probak probatu ez dituztenek barrerarik ez dezatela jarri, probatzeko polit askoak dira eta.

# Igande honetan, Aginagako III. Mendi Lasterketa

**Igande honetan jokatuko da hamalau kilometro luze izango dituen Aginagako III. Mendi Lasterketa. Goizeko hamaiketan hasiko da bertako frontoi paretik, eta helmuga ere gune berean izango du. Izen ematea aldez aurretik egin daiteke, herrikrossa.com atarian. Baita apirilaren 3an ere, goizeko 9:30-10:30 artean.**



Irudian Walhter Becerra iazko garailea, helmugara iristen.

Sari potoloak iragarri dituzte antolatzaileek. Gizonezko zein emakumezkoetan: lehenak, trofeoa, txapela, loreak eta 250 euro; bigarren sailkatzen denak, trofeoa eta 150 euro; hirugarrenak trofeoa eta 100 euro; laugarrenak trofeoa eta 50 euro. Trofeo bana jasoko dute bestalde, 45 urtetiko gorako gizonezko eta 40 urtetik gorako emakumezko beteranoen artean helmugara ailegatutako lehen lasterkariek, baita bertako lehen gizonezko eta emakumezkoak ere.

Ez hori bakarrik. Partaide bakoitzak Aginagako produktuez hornituriko opari poltsa jasoko du; piperrak, sagardoa, gulak… Modu horretan, bertako produktuok lasterkariei eskainita kirol ekimena lagundu nahi izan dute herriko zenbait enpresek.

### Ikusleentzat ere, hamaiketakoa

Eta bada gehiago. Partaideek lasterka aritzeko kamiseta teknikoa ere jasoko baitute, hamaiketako ederrarekin batera. Eta zozketak ere burutuko dira lasterkarien artean.

Antolatzaileek, proba bertatik bertara ikusteko joatera deitzen diete herritarrei.

Gogorarazten dutenez, giro ederra egotearekin batera, hamaiketako goxo askoa dastatzeko aukera izango dute. Eta guztia doan.










# txinparta

sagardotegia

Eguneko menuak, pintxoak, ogitartekoak, razioak

Illarra Berri, 2 (Igara) DONOSTIA 943 22 47 00

# Usurbildar baten artikulu bat saritu dute CAF-Elhuyar sarietan

**Elhuyarrek urtero banatzen dituen sariak dira hauek. Aurten, dibulgazioko artikulu orokorren saria Jose Maria Rivadeneyrarentzat izan da. Unibertsitateko irakaslea da eta *Merezi ote digu banda-zabalera handitzea?* artikuluarengatik jaso du saria. Epaimahaiaren arabera, "adibide eta analogia errazen bidez, denok inoiz egin dugun galderaren erantzuna ematen digu, gainera".**



PASA DEN OSTEGUNEAN JASO ZUEN SARIA RIVADENEYRAK.

Usurbildar irakasleak, kontsumitzaileen lekuan jarririk eta era erraz batean, Interneteko banda-zabalera handiagoa kontratatzea merezi ote duen azaltzen du. Artikulu honetan, Rivadeneyrak esplikatzen du zein faktorek eragiten duten etxera iristen den Interneteko seinalearen abiadura, eta zerk mugatzen duen zer Interneten. Webak nola funtzionatzen duen esplikatzen du, eguneroko bizitzako analogiak erabiliz (autoilarak, adibidez).

Epaimahaiaren ustetan, "egileak asmatu egin du era ulergarrian azaltzen gai tekniko eta itxuraz lehor bat. Adibide eta analogia errazen bidez, denok inoiz egin dugun galderaren erantzuna ematen digu, gainera".

Gazteei zuzenduriko zientzia-narrazioen saria Aitzol Lasa barañaindarrak eraman zuen, "Bizikletak" izeneko proiektuari esker. Sail honetan, Yolanda Arrieta aritu zen epaimahaian.

# Errotazio bidezko aparkalekuak asteburu honetan jarriko dira martxan

Komertzio orduetan bezeroek erosketak erosoago egitera eta zamalanetara bideratuko diren 47 aparkaleku egongo dira aurrerantzean kaxkoan. Guztiak, lurzorua kolore urdinez margotuak dauden guneetan kokatuko dira eta errotatorioak izango dira. Bertan, autoa gehienez ordubetez aparkatu ahal izango da.



HURBILAGOKO DENDETAN ESKURA DAITEZKE DISKO HAUEK.

## Andaluziara bidaia

Ekainaren 2tik 10era, Cadiz ezagutzeko aukera aparta izango dute animatzen diren jubilatuek. Santueneko Gure elkarteak, Aginagako Arrate elkarteak eta kaxkoko Gure Pakea elkarteak antolatu dute bidaia. Informazio gehiago, hiru elkarteetako bulegoetan.



## 100 euroko erosketa txartela irabazi du

Erosketa aQtiborako Planak euskal kontsumitzaileen fideltasuna saritu nahi zuen. Horretarako, 50 eta 100 euroko erosketa-txartelak banatu zituzten, doan, Euskadiko saltokietan. Usurbilen, Optika Usurbil saltokiak hartu du parte eta Jose Luis Elosegik (eskubikoa) 100 euroko erosketa txekea eskuratu zuen aurreko astean.

## Kinto bazkaria

1971. urtean jaiotakoek kinto bazkaria antolatu dute Saizarren. Txapeldun tabernan eman behar da izena apirilaren 30a baino lehen. Datu gehiago: 686 756 838 / 669 353 942.

## Erroizpeko batzarra

Igande honetan, apirilak 3, eguerdiko 11:00etan Erroizpe elkarteko Urteko Batzarra ospatuko da. Bazkide guztiak parte hartzera animatu nahi ditu zuzendaritzako taldeak.







## Gospel doinuak eskaintzera dator

# Mac Jeara´s Band taldea

Ikusgarri izateko osagai guztiak ditu ostiral honetako kontzertuak. Mac Jeara´s taldekoak jazz munduko hainbat estilo landu izan dituzte: dixie, swing, big band. Ikuskizun berrian, gospel estiloko kantuak ere bildu dituzte: "Swing Low, Sweet Chariot", "Do Lord" edota "Oh Happy Day" abesti ezagunak entzun ahal izango ditugu Sutegin. Mac Jeara´s Band taldearen proiektu berrian bi usurbildar ari dira gainera: Agurne Alkorta eta Iñaki Zugasti. Emanaldi alaia, bizia eta atsegina eskaintzera datozela adierazi digute.



TALDE HONETAN, AGURNE ALKORTA ETA IÑAKI ZUGASTI ARITZEN DIRA KANTUAN.

## Agurne Alkorta eta Iñaki Zugasti, Mac Jeara´s Bandekin batera kantuan

**Landarbaso Abesbatzarekin hasi zirenetik, asko ikasi dute. Eta kantuaren aitzakiarekin, munduan barrena ibili dira Landarbasoko gainontzeko kideekin batera. Txinan, Amerikako Estatu Batuetan edota Frantzian aritu dira kantuan, abesbatza lehiaketa garrantzitsuenetan parte hartzen. Zumarte Abesbatzan ere jarraitzen dute eta, hori guztia gutxi balitz, orain Mac Jeara´s Band taldean hasi dira abesten. Ostiral honetan Sutegin arituko dira.**



OSTIRALEAN, 20:00ETAN HASIKO DA MAC JEARA´S BANDEN SAIOA.

Landabarsoko kide baten bidez jaso zuten proposamena. Mac Jeara´s Band taldekoek, emanaldi berri bat prestatzen hasiak zirela eta kantarien premian zirela. Landarbasoko hainbat kide animatu ziren, tartean, bi usurbildar hauek. Oraingoz, disko bat grabatu eta kontzertu bakarra eskaini dute. Sutegikoa bigarrena izango da. Gogotsu ikusi ditugu eta euren esanetan, jendeak oso ondo pasako du, besteak beste, errepertorioa ezaguna eta alaia delako.

### Soinurbil, azken txanpan

**Martxoak 31 osteguna**
**Zumaia eta Zumarte Musika Eskolak kantari**
Sutegin, 18:30ean. Sarrera: Doan.

**Apirilak 1 ostirala**
**Mac Jeara´s" Band**
Sutegin, 20:00etan. Sarrera: Aldez aurretik, 2 euro kiroldegian. Egunean bertan, 4 euro.

**Apirilak 2 larunbata**
**Lau Haizeta Akordeoi Orkestra**
Sutegin 18:30ean. Sarrera: Doan.

**Apirilak 3 igandea**
**Illumbe Musika Banda**
Kalejira: 11:30ean.
Kontzertua: 12:30ean frontoian.









# Usurbil FT erregional taldeak eskura du maila igoera

**Lehen postuan amaitu zuen lehen itzulia eta bigarrenerako erronka argia da. Sailkapen buru izateari eutsi eta denboraldia amaitzerako mailaz igo ahal izatea. 24 jokalari eta entrenatzaileek helburua bete daitekeela argi dute, giro ona eta lanerako gogoa ez baitzaie falta. Usurbil FT-ko erregional mailako taldearen ametsa udaberri honetan gauzatu daiteke.**


IBAN TXIPIREN ESANETAN, "BORROKA POLITA EGONGO DA BUKAERA ARTE".

**NOAUA! Bederatzitik zortzi partidu irabazita, bukatu zenuten lehen itzulia. Zeintzuk dira hain emaitza onen zergatiak?**

**Iban Txipi.** Jokalariak nola zeuden giltzarria izan da. Oso mentalizatuta daude igo nahi dutela, eta hori lortzeko lan eta lan ari dira. Bai beraiengatik, klubarengatik eta herriarengatik.

**N. Jarrera horiek entrenamendu saioetan ere islatuko dira?**

**I. T.** Bai. Zaila da osteguna ailegatu eta sei jokalari partidetako deialdietatik kanpoan uztea, jendea entrenamendu saioetara gogo handiz etortzen baita. 24tik 18 joan behar gara partidetara. Neurketetan, hamaseik jolas dezakete. Orduan beti bi gelditzen dira jolastu gabe eta askotan, horregatik, dena ez da poza. Baina jokalariek oso jarrera ona dute egoera horren aurrean. Eskertzekoa da.

**N. Partida bakar bat zenuten denboraldiko lehen zatian. Nolatan?**

**I. T.** Kanpoan galdu genuen, Soraluzen. 0-2 irabazten hasi ginen, baina zelai txiki eta estua zen. Futbolean gaizki jolastu genuen. Beraiek golak, bi korner eta faltetan sartu zizkiguten. Lastima, baina bestela oso gustura.

**N. Bigarren itzulia hasita, zuen helburua lortzeko zer emaitza behar dituzue?**

**I. T.** Guztira, bederatzi partida jokatu behar ditugu. Hortik, bi bakarrik galdu beharko genituzke. Ez dut uste halakorik gertatuko denik, taldea oso kontzentratua baitago eta lan egiteko prest. Borroka polita egongo da bukaerara arte.

### LAGUN GIROAN

"Taldea bikain aritu da, bai futbol zelai barruan eta baita hortik kanpo ere"

**N. Taldean zer giro sumatzen da?**

**I. T.** Giro ederra. Jendea mentalizatuta dago, igo nahi dutela eta igoko direla. Emaitzak horregatik datoz. Galtzen joan izan direnean, lan eta lan borroka egin dute, egoerari buelta eman arte. Orain bezala, zortzi partida irabazi arte.

**N. Mailaz igota, nola irudikatu dezakezue hurrengo denboraldia?**

**I. T.** Talde hau ondo ibiliko da Erregional preferente mailan.

**N. Zer esan nahi zenieke jokalariei?**

**I. T.** Abenduan bilera bat egin nuen taldearekin, eskertzeko, Oriotik bainator. Hona etorri eta halako jende jatorra topatu dut, besoak irekita hartu naute eta denak laguntzen aritu dira. Talde zoragarria da benetan eta beraiek badakite. Bileretan esaten diet, beti izango dudala konfiantza eurengan. Oso gustura nago. Eskertu nahi nieke orain arte egin duten lana.

## Huizi eta Landa txapeldun, Gipuzkoako Trinkete Txapelketan

Gipuzkoako Trinkete Txapelketan, Usurbilgo taldea geratu da txapeldun. Enrike Huizi - Mikel Landa bikotea nagusitu zen finalean, Loiolako Aldazabal anaiei irabazi ondoren.


HUIZI-LANDA BIKOTEA, SARIAK JASO BERRITAN.

## Usurbilgo Pilota Txapelketa, asteburu honetako partidak

**Apirilak 2 larunbata, goizeko 10:30ean**
**Nagusiak, Usurbilen**

| | |
|---|---|
| Lertxundi-Galarraga (Orio) | Sarraoa-Lekue (Legutio) |
| Goikoetxea-Mendia (Beasain) | Juanenea-Aldalur (Igantzi) |
| Etxeberria-Urruzmendi (Igeldo) | Arrieta-Lizeaga (Hernani) |

**Apirilak 3 igandea, goizeko 10:30ean**
**Nagusiak, Aginagan**

| | |
|---|---|
| Arrieta-Ansotegi (Markina) | Portu-Katalina (Usurbil) |
| Jaka-Garmendia (Amezketa) | Rodriguez-Intsausti (Zumarraga) |
| Esnal-Aizpitarte (Hernani) | Jauregi-Berroeta (Maeztu) |

## Agenda

**Martxoak 31, osteguna**
**Zumaiako eta Zumarteko Musika Eskolak,** 18:30ean Sutegin.

**Apirilak 1 ostirala**
**Mac Jeara´s Band.** 20:00etan Sutegin.

**Apirilak 2 larunbata**
**Lau Haizetara Akordeoi Orkestra.** 18:30ean Sutegin.

**Apirilak 3 igandea**
- **III. Mendi Lasterketa.** 11:00etan Aginagako frontoitik.
- **Illumbe Musika Banda.** 11:30ean kalejiran, 12:30ean frontoian.

### Goardiako farmaziak

**Martxoak 31, osteguna**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Apirilak 1, ostirala**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Apirilak 2, larunbata**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Apirilak 3, igandea**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Apirilak 4, astelehena**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Apirilak 5, asteartea**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Apirilak 6, asteazkena**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Apirilak 7, osteguna**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Apirilak 8, ostirala**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Apirilak 9, larunbata**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Apirilak 10, igandea**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

** Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.*

G*OARDIAKO FARMAZIA,GAUEZ*
*Aizpurua, Latxunbe Berri, 11, Hernani*
*Telefono zenbakia: 943 336 077.*

# Asteburu honetan, atez atekoaren inguruko nazioarteko jardunaldiak

***Atez Atekotik Zero Zaborrera, errausketarik gabe*** **lemapean, Nazioarteko Jardunaldien bigarren edizioa antolatu dute Gipuzkoa Zero Zabor bilguneak eta Usurbilgo Udalak. Europa mailan erreferentziazkoak diren bi adituk parte hartuko dute, larunbat honetan goizeko 10:30ean Sutegin.**


Joan marc Simon aditua.

Europa mailan erreferenteak diren bi aditu gonbidatu dituzte antolatzaileek larunbat honetan burutuko diren Nazioarteko Jardunaldietarako. Batetik, Alfonso del Val. Perito judizial lanetan aritua da, Madrilgo fiskaltzak eskatuta, Valdemingomezeko errauste planta ikertzen, bertan eman zen kutsadura larriaren zergatiak aztertzeko. Ezker Batuaren eskariz, Foru Aldundiak onarturiko PIGRUG-a ere zorrozki aztertu zuen. “Errauste planta batek eragindako kutsadurak eta hauen kontrolak” izeneko hitzaldia eskainiko du Sutegin.

Gipuzkoa Zero Zabor bilgunearen eta Usurbilgo Udalaren eskutik, bigarren hizlari bat ere Sutegin izango da; Joan Marc Simon, hondakinen eta errausketa gaietan aditua. “Errausketaren kontrako eta Zero Zaborren aldeko mugimenduak Europan eta munduan” izeneko hitzaldia eskainiko du. Alor honi buruzko artikulu mamitsuak argitaratu eta GAIA errausketaren aurkako mundu mailako mugimenduaren Europako ordezkaritzan lan egiten duela ohartarazi dute antolakuntzatik.

### Bilboko manifestaziora joateko autobusa antolatu da

*Euskal Herriarentzat normalizazioa: legalizazioa orain!* eskatzeko manifestazioa deitu du Gernikako Akordioak Bilbon, larunbat honetarako, apirilaren 2rako. Bizkaiko hiriburuko La Casillatik abiatuko da manifestazioa, arratsaldeko 17:30ean. Gernika-Usurbil taldeak autobusa antolatu du Bilbora joateko. Arratsaldeko 15:30ean irtengo da Bordatxo aurretik. Autobusean joateko izena aldez aurretik eman behar da, Txiriboga eta Bordatxo tabernatan jarriko diren zerrendatan.

### Jatorri aniztasuna eta elkarbizitza jardunaldiak

**Martxoak 31, osteguna**
**19:00** Jardunaldiaren irekiera.
**19:20** Mahai ingurua Sutegin: "Horrelakoak gara". 20:00 Eztabaida.

**Apirilak 1, ostirala**
**18:00** Mahai-ingurua Udarregiko liburutegian: "Hik ikasi, guk hasi eta denok hazi". 19:00 Eztabaida.

**Apirilak 2, larunbata**
**22:00** Askatasuna plazan: “Anitzak Hitzak”. Hip-hop, break dance, beat box, bertso hop, bideo,...







*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**
**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER**
**ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**
*Kale Nagusia 10, 1.C4* *20170*
*Tlf 943 37 08 78* *USURBIL*

### ETXEBIZITZA

- Usurbilen alokairuan dagoen pisu baten bila nabil. Idoia 695733535.
-Hiru logeletako pisu bat alokatzen da Kaxkoan. 943 371 495 / 695 767 821.
- Kaxkoan pisua alokatzen da. 2 gela, sukaldea, sala eta komona.Tlf: 670070562
- Santuenean etxe bat alokatzen da. 679 366 415.
- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan, 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatuta. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitsua. Tlf: 686969112
- Kaxkoan etxebizitza salgai. Hiru logeladuna, bi komun eta trasteroarekin. 685 731 792.
- 90 metro karratuko pisu bat daukagu salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, bi komun eta 7 metro karratuko ganbara bat.Oso eguzkitsua eta bizitzen jartzeko moduan dago. 699680265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu).
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 130.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
-Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
-Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat salgai Alfaron (Errioxa). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herritik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna, portxea. 675702428 (gauez).
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
-95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 141.000 euro. 943 36 98 35 (21:00etatik aurrera).
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

### SALEROSKETAK / GARAJEAK

-Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. 669645585 edo 943365191.
-18 metro karratuko garaje itxia salgai, Puntapaxen (Artzabal). 943 100 592.
- 5800 metro karratuko lur eremua salgai Usurbilen, 150 sagarrondorekin. Deitu: 943 361 463
- Nissan Almera salgai. Matrikula: SS-BG. Prezioa: 1.500, IAT (ITV) pasea du. 615 798 479.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
-33m karratuko lokal bat alokatzen dut Atxegalden 280 eurotan. Sarrera egokia. 943373414
-50cc-ko motorra salgai. 2 urte, oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

### LANPOSTUAK

#### Lan-eskaerak

-Emakume bat behar da haurrak zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. Interesatuta bazaude 615756893.
-Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabiltza. Banaketa afaritarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabiltza. Nahiago dugu Usurbilgoa eta euskalduna izatea. Interesatuak deitu 676355635 telefonora.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Hala bada, pasa zaitez Udarregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.

#### Lan-eskaintzak

- Garbiketa lanetan edo dendari moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Herriko emakume euskaldun bat eskaintzen da pertsona helduak eta gaixoak zaintzeko. Ordutegi malgua (egunez zein gauez) eta prezio ekonomikoak. 687348223.
-Emakume esperientziduna eta erreferentziekin eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123
-Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrak ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltseritza lanetan aritzeko, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziduna. 658107757
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
-Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
-Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. 656446835.
-Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
-Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
-Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
-Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
-Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
-Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.

### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- "Cama nido" bat daukagu behar duenari emateko. Egur kolorezkoa eta urdina da, 1,90x0,90 neurritakoa. Interesatuak deitu 656521750.
- Umea kotxean eramateko ziurtasun aulkia (10 kilotik gorakoa eta etzaten dena) erosiko nuke. Tlf: 658721427
- Kamera digital bat desagertu zitzaigun liburutegian, martxoaren 11n. Asko eskertuko da bueltatzea. 686 554 145 (Ana).
- Sukaldari bat eskaintzen da famili nahiz lagun arteko bazkariak antolatzeko eta prestatzeko etxeetan, elkarte gastronomikoetan...... 670 410 273.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. Interesatuta bazaude: 669645585 / 943365191.
- 11 husky siberiar txuri oparitzeko. 649906678.
- Andatza mendian (Puelako bidean) mendiko txamarra mutilarena, urdin iluna, galdu dut. 657702038.
- Umea eramateko "mendiko motxila" erosiko nuke. 647973854.
- Hemengo intxaurrak salgai, prezio onean. Telf: 943 67 11 60. Edurne.
- Su-egurra salgai modu onean. 689937338 Jesus Mari.
- Wii kontsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiak kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Garantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113




Gu guztion besoak luzatuz ere, ezin Autunera iritsi belarri horiek tiratzeko, baina gure bihotzetan ez zagok distantziarik. **Zorionak Ximio!!!**



**Zorionak Eluxka!** Apirilaren 4a, azkenean iritsi da zure eguna!! Merendola goxo goxua prestatu eta opari asko jaso! Muxu handi bat. Koro.



**Zorionak Anne!** 6 urte beteko dituzu apirilaren 6an. Zorionak eta ondo pasa. Muxu handi bat!



**Zorionak Helene!** Martxoaren 27an egin dituzu 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat!



**Zorionak Kimetz!** Martxoaren 29an urtebetetze eguna duzu. Zorionak eta muxu handi bat!!



**Zorionak Joritz!** Oso goxoa zegoen zure tarta. Muxu handi bat, Agiñako herri eskola



**Zorionak Ariana!** Oso goxoa zegoen bizkotxoa. Muxu handi bat, Agiñako herri eskola










DIGITAL+
antenas
Telemar
1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.
Orain Usurbilgo erdigunean
Ltd-ko kanal berri hauek
ikusteko aukera ...
8 gipuzkoa
teledonosti
hamaika
ikusteko bizitzeko
elkano kalea 13 HERNANI
Tlfnoa. 943 55 33 99
info@antenastelemar.com
tdt


Ate Irekiak
GUK LA SALLE
BERROZPE
ETA ZUK?
HEZIKETA
ZIKLOAK
Apirilak 12
17:00
www.lasalleberrozpe.com
LaSalle Berrozpe
LSB
Andoain


KABITAZIOA
Zure gorputza kirurgiarik gabe modelatzen duen teknika
Bai GIZON eta EMAKUMEETAN emaitzak:
·Liposukzio efektua
·Zelulitisaren desagerpena
·Koipe lokalizatua gutxitu egiten da
·Gorputzaren silueta modelatzen du
·Azala leundu egiten du
·Tejiduak berrindartzen ditu
INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA
Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41 (egun guztia irekia)
Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu

GU

Gernika-Usurbil

# HITZALDIAK

## Aterabide demokratikoak

**Apirilak 8, ostirala**
**19:00tan**
**Sutegin**



**Iñaki Aldekoa**

**Apirilak 15, ostirala**
**19:00tan**
**Sutegin**



**Floren Aoiz**

# MANIFESTAZIO NAZIONALA

***Euskal Herriarentzat normalizazioa:***

# *LEGALIZAZIOA ORAIN!*

## Apirilak 2 larunbata, 17:30etan, Bilbon

Autobusa arratsaldeko 15:30etan aterako da Bordatxo aurretik.
Izena emateko tokiak: Bordatxo eta Txiriboga